

MUGIKORTASUNA ETA IRISGARritasuna

Iturria: Open Data Euskadi, Google Maps, MetroBilbao, Bizkaiko Foru Aldundia - Bizkaibus.

Fadura leku pribilegiatu batean dago Getxoren mugikortasunaren barruan. Gobelako haranean kokatuta dagoenez, erraz iris daiteke leku guztietara iparralde-hegoalde ardatzean, bai garraio publiko bai bizikletaz edo autoz. Hala ere, zeharkako irisgarritasuna, esaterako, kostaldetik, askoz ere zailagoa da, maldengatik eta mugikortasun-sistemarengatik berarengatik.

Oso garrantzitsua da Fadurako irisgarritasuna oro har hobetzea, batik bat motordunak ez diren joan-etorriak edo garraio publiko eginda-koak erraztuz. Horrez gain, eremuaren irisgarritasuna hobetu behar da, haren mugak eta instalazioetara edo kiroldegiaeren perimetroan kokatuta dagoen berdeguna sartzeko modalitateak aztertuz.

Bilbo Handia Fadurako erakartze-eremu gisa
Fadura aldeko eremu batean dago mugikortasunari dagokionez.

Batetik, bi metro-geltoki hurbil daude, eta horri esker, azkar eta eraginkortasunez lotu daiteke Bizkaiko eskualde osoarekin. Esaterako, Zazpi Kaleetako geltokitik Aiboako geltokiraino 27 minutu bakarrik behar dira, eta Aiboa-Sopela tarte 11 minututan egiten da.

Euskadiko oinarritzko errepide-sistemarekin dagoen lotura onari esker, Fadurara joateko, oro har, denbora gutxi behar da. Esaterako, Bilboko hirigune historikotik Fadurara joateko, trafiko arruntarekin, 20 minutu beharko lirake, eta gauza bera Portugaletetik abiatuz.

↓
Bilboko Metroaren igarotze-denborak.





GARRAIO PUBLIKOA ETA BIZIKLETEN ETA OINEZKOEN IRISGARRITASUNA

Iturria: Open Data
Euskadi, Google Maps,
MetroBilbao, Bizkai-
ko Foru Aldundia
- Bizkaibus..

Fadurako kiroldegia garraio publikoko zenbait sarerekin lotuta dago.

Bi metro-geltokitatik oinez joanda metro gutxi batzuetara dago: Algorta (13 minutu Algorta-Fadura eta 16 minutu bueltan, aldapak kontuan hartuz) eta Aiboa (10 minutu joanekoa eta 11 minutu etorria). Baina malda handia dago bien artean, beraz, zaila da mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erraz heltzea.

Bizkaibus garraio publikoko sistemaren geltoki bat kiroldegiaren sarrera nagusiaren aurrean dago. Linea hauetako autobusak gelditzen dira: A2164 (Getxo-UPV/EHU), A3414 (Bilbo-Getxo), A3422 (Areeta - Berango), A3471 (Getxo - Gurutzeta) eta A3531 (Areeta - Armintza).

Bizikletaz ere hel daiteke Fadurara Makaleta Etorbide osoa zeharkatzen duen bidegorriaren bidez, hegoaldetik. Kiroldegitik igarotzen da eta Salsidualderantz jarraitzen du, iparralderantz. Algortako hirigunearekin egindako zuzeneko loturak zailagoak dira, maldarengatik eta bidegorririk ez dagoelako. Sarreratik hurbil "Aparka" sistema ere badago, bizikleta publikoa eta pribatua aparkatzeko gunea dena.

Bizikletak aparkatuta
Fadurako sarreran.
→ →


M"Aparka" modulua,
kiroldegiko sarrera
nagusitik hurbil
dagoen bizikleta
publikoko sistema eta
bizikleta pribatueta-
rako aparkalekua da.



Mugikortasun hobe-
tuko sistema Salsidu
Etorbidean..
→ →

Autobus-geltokia
hurbil: Makaleta
etorbidea, kiroldegiko
eraikin nagusiaren
kontrako espaloian.





MUGIKORTASUNARI BURUZKO INKESTA


Iturria: Getxoko Udalak Getxo Kirolakekin lankidetzan egindako mugikortasunari buruzko inkesta, aurrez aurre eta online, 2017ko ekainean.

Diagnostikoa idaztean mugikortasunari buruzko inkesta bat egin zen erabiltzaileek kiroldegi-
ra heltzean zer ohitura zituzten jakiteko.

Inkesta aurrez aurre (Fadurako eraikin nagusian ontzi bat egonda - 248 ekarpen) nahiz online (abonatu guztiei posta elektronikoz inprimaki bat bidaliz - 1.015 ekarpen) egin zen. Guztira, baliozkoak ziren 1.263 erantzun jaso ziren (abonatu guztien % 5). Datu estatistiko gisa, nabarmendu behar da inkestan 913 emakumek (erantzun zuten pertsonen % 60) eta 597 gizonak (% 40) parte hartu zutela. Bestalde, Getxo Kirolakeko pertsona abonatu guztien banaketa osoa desberdina da: % 47,8 bakarrik dira emakumeak.

Kontuan hartu beharreko beste datu garrantzitsu bat da erabiltzaileen zati handi bat ez dela zuzenean islatzen inkestan, grafikoan ikusten den moduan, edo ez zuen parte hartu edo ez da independentea garraiobideei dagokienez (18 urtetik beherakoak).

Inkesta erantzun zuten pertsonen erdia normalean autoz ibiltzen da, eta heren bat baino gutxiago oinez. Nabarmentzekoa da garraiobide publikoak erabiltzen dituzten pertsonen ehuneko eskasa (guztietatik % 4 bakarrik).




Oro har, joan-etorri gehienak (% 94) hiru garraiobideren bidez egiten dela esan daiteke: autoz, bizikletaz eta oinez.

Garraio publikoa erabiltzen duen hain pertsona gutxi egotearen arrazoiak artean egon daiteke Faduratik hurbil igarotzen diren garraio-linea gehienak hiriartekoak direla, eta erabiltzaile gehienak Getxoko hirigunetik datozela. Horrez gain, kontuan hartu behar da modu gutxi daudela Getxon ekialdera eta mendebaldera joateko, eta topografiak ez duela laguntzen norabide horretan bizikletaz ibiltzeko. Beste arrazoi bat bisitari bakoitzak eramaten duen lagun kopuruarekin lotuta egon daiteke: umeei joaten diren pertsonak ziur asko garraio publiko gutxiago erabiltzeko joera dute garraiobide partikular bat badute.


Inkestako parte-hartzaileen eta Fadurako erabiltzaileen adin-profilaren arteko erkaketa.

— Inkesta
— Erabiltzaileak




Zentzu honetan, esanguratsua da inkestatutako pertsonen hiru laurdenek normalean garraio-bide bat bakarrik erabiltzea Fadurara joateko. Datuak hurbilagotik aztertuz, ehuneko horiek asko aldatzen diren konturatu gara, pertsona bakoitzaren garraiobidearen arabera: Autoz joaten direnek kasuen % 70ean garraio-bide bat bakarrik erabiltzen badute, normalean bizikletaz ibiltzen direnek kasuen % 56an 2 garraio-bide erabiltzen dituzte.

Normalean erabiltzaile berak erabiltzen duen garraiobide kopurua



Ez da antzematen desberdintasun esanguratsurik generoari dagokionez: Normalean autoz joaten diren emakume nahiz gizonen ehunekoa % 50 ingurukoa da.


Generoa



Hala ere, desberdintasun handia dago datuak adinaren arabera aztertzen baditugu. 18 eta 30 urte artekoetan, autoa erabiltzen duen pertsona kopurua oinez joaten den pertsona kopuruaren baliokidea da, eta % 18k bizikleta erabiltzen du.

Ehuneko horiek nabarmen aldatzen dira 30-50 adin-tartean, autoa % 52k erabiltzen dutelako.

Adina




Garraiobideen legenda:

- Autoa
- Oinez
- Bizikleta
- Motorra
- Autobusa
- Metro

Lagun kopuruak ere eragina du erabilitako garraiobidean: bakarrik joaten den jendea gutxiago joaten da autoz; bi lagunekin joaten denak, normalean, gehiago erabiltzen du.


Datu hori erabilgarria izan liteke Fadurako aparkaleku-sistema berriro planteatzeko. Esaterako, “espres” aparkalekuak sortuz oso egonaldi laburretarako, ardurapean adingabeak edo bestelako lagunak utzi, jaso edo itxaron behar dituzten pertsonentzat.

Lagun kopurua




Jatorriaren datuak aztertzen baditugu, gehienak kiroldegitik hurbil dagoen eremu batetik joaten direla ikusten dugu. Horren ondorioz, % 80k 15 minutu baino gutxiago behar ditu Fadurara heltzeko (etxeko atetik kiroldegiko ateraino).

Nabarmena da Algortako eremuko jendearen % 57 oinez joaten dela Fadurara, eta % 28k bakarrik erabiltzen duela autoa. Ehuneko horiek nabarmen aldatzen dira kiroldegitik apur bat bakarrik urruntzen bagara. Berangotik datozen pertsonen % 75, esaterako, normalean autoz joaten dira.



Metroz joaten diren pertsonak dira denbora gehiago behar dutenak Faduraraino heltzeko, 25 minutu inguru. Haien atzetik, autobusez datozenak daude: 19 minutu. Oinez, autoz edo bizikletaz joaten direnek 12 eta 14 minutu artean behar dituzte batez beste, eta motorra erabiltzen dutenek bakarrik behar dituzte 10 minutu baino gutxiago.



Fadurara heltzen diren pertsonen % 63, pertsona batekin bakarrik joaten da ohiko ibilbidean kiroldegira, eta % 30 adingabekoekin joaten da. Horrek esan nahi du kiroldegira beste pertsona batekin joaten den jendearen % 47 adingabe batekin dagoela. Joan-etorri horiek gehienak autoz egiten dira (% 54), eta gainerakoak oinez eta bizikletaz. Biak batera % 40 dira. Gainerako garraiobideak ia ez dira erabiltzen.



←
Fadurako eraikin nagusiaren aurrean dagoen bizikleta-aparkalekua

APARKALEKUEN EGOERA ETA HORIEN BEHARRA

Iturria: Getxoko Udalak Getxo Kirolakekin lan-kidetzan egindako mugikortasunari buruzko inkesta, aurrez aurre eta online, 2017ko ekainean.

Gaur egun, Fadurako kiroldegiak aparkalekua-ekin zerikusia duten zenbait arazo ditu, eta horiek irtenbide osoa behar dute, baita hiri-tarragoa den ikuspegi bat ere, bertakoa baino gehiago.

Dauden eremuak

Kiroldegiak aparkatzeko eremuak ditu Makaleta etorbidean zehar, eta batez ere eremua zeharkatzen duen Salsidualde Estarte tartean. Egunean eta astean zehar jende asko dagoenez, aparkaleku horiek ez dira nahikoak, eta beste eremu batzuk gaitu dira aldi baterako.

Salsidualde kalean zehar ilarako zenbait aparkaleku egin dira galtzadaren ondoan, eta zenbait ekitalditan beste bi eremu ere prestatzen dira kiroldegiaren hegoaldean, “txandakako aparkaleku” gisa.

Iparraldean, beste sarbide bat ireki denez, bizileku-eremuko aparkaleku asko Fadurara joaten diren pertsonak erabiltzen hasi dira, eta horrek gatazkatsua izan daitekeen egoera bat sortu du.

Hiri-ikuspegi integrala


Kiroldegiaren erabilera eta irisgarritasuna gehiago sustatu nahi badira, autoa (eta aparkalekua) baztertu beharko lirateke, epe luzera jasangarritasun-maila txikiena duena delako, espazioa eta ekologia kontuan hartzen baditugu. Beraz, beste garraiobide batzuetan pentsatu beharko genuke. Zenbait pertsona-taldek ezin dute auto utzi, baina, ziur asko, beste batzuek gutxiago erabil lezakete hobeto informatuta egongo balira, sentsibilizazio kanpaina batekin, edo pizgarriekin beste garraiobide batzuk erabiltzeko.

Erabileraren estimazioa

Mugikortasunari buruzko inkestaren datuak eta erabileraren datuak alderatzen baditugu, gutxi gorabehera Fadurak duen aparkaleku-beharrak aintzat har dezakegu. Estimazio honetan ez dira barne hartzen asteburuak, beste mota bateko pertsonak joaten direlako eta jardueren programazioa kirol-ekintzekin lotuago dagoelako, entrenamenduekin edo ohiko kirolariek baino gehiago.

Hain aldekoa ez den kasua kontuan hartuz, ostegun arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara, 1.205 pertsona igarotzen dira tornuetatik, eta 17:00etan igarotzen den jenderik gehiena, 410 sarrera. Gutxi gorabehera 2 ordu ematen dituztela kontuan hartzen badugu, ondorioztatu dezakegu 18:00etan, 17:00etan sartu ziren 410 pertsonak gehi 18:00etan sartzen diren 321 pertsonak daudela kiroldegian; 731 guztira. Mugikortasunari buruzko inkestaren arabera, erabiltzaileen % 50a autoz heltzen direla kontuan hartzen badugu, gutxi gorabehera 380 aparkaleku beharko lirateke. Eta auto bakoitzean batez beste 2 edo 3 pertsona joaten direla kontuan hartzen badugu, 200 plazetara murriztuko litzateke kopuru hori. Horiei, Getxo Kirolakeko langileek eta gainerako langileek edo tornuetatik igarotzen ez diren erabiltzaileek hartutako plazak gehitu beharko litzaieke.

Balioespen sinple eta azkar horretan ez dira barne hartzen funtsezko zenbait aldagai, hala nola klima, baina oinarri gisa erabil daiteke Faduran dauden benetako aparkaleku beharrei buruzko gogoeta egiteko, eta beharrezko plaza kopurua murriztu dezaketean eragileak aztertzeko.



←
Fadurako eremuan
dauden aparkalekuen
azterketa kuantitati-
boa eta kualitatiboa.

3 aparkaleku-eremu
nagusi daude: erdikoa,
213 plazarekin, Fadu-
rako eraikin nagusiko
eremua, 66 plaza in-
gururekin, eta Bolueko
futbol-zelaian eremua,
53 plaza ingururekin.

Beste 2 eremu gehiago
kontuan hartu behar
dira: iparraldeko sar-
bidetik hurbil dagoen
eremua, erabilera
publikoko 144 plaza di-
tuen, eta asteburue-
tan ekitaldi handietan
aldi baterako aparkale-
ku gisa erabiltzen diren
bi eremu, Fadurako
hegoaldean daudenak.

- Aparkaleku publikoa
- Fadurako aparkale-
ku eskusiboa
- Aldi baterako
aparkalekua

MAKALETA ETORBIDEA

Iturria: Getxoko Udala
- Ingurumen saila, Hiri-
gintza, Obra, Zerbitzu,
Ondare eta Etxebizitza
saila

Fadurako etorkizuna diseinatzeko, Makaleta etorbidea etorkizun hurbil batean, Udalaren eta Aldundiaren arteko hitzarmen bati esker, foru errepidea izatetik udal errepidea izatera pasako dela kontuan hartzea garrantzitsua da.

Ez dira zehaztu oraindik etorbide berriaren diseinuaren xehetasunak, baina erabilgarria da gaur egungo ezaugarriak eta arazoak ezagutzea kontzientziaz esku hartzeko.

Gaur egun, Makaleta Etorbidea BI-637 errepidea dela eta bere garrantziaren zati bat galdu duen foru-errepidea da. Gehieneko abiadura 50 km/h da, eta normalean 4 errei ditu. Horrek oso inguru deserosoa eragiten du oinezkoentzat, beraz, berriz planteatu behar da etorkizuneko parkearekin eta hiriarekin lotura hobetzeko.

Etorbidearen hegoaldeak (Iturribarri kaleko bidegurutzetik, Salsidualde Estartaraino) atal zabal bat du: espaloi bat eta bidegorri bat ekialdean, eta beste espaloi bat mendebaldean. Iparraldean (Salsidualde Estartatik abiatuz) 3 errei daude, bidegorria desagertzen da eta bi espaloi bakarrik daude. Iparralderago, gehiago murrizten da, izan ere, ibaiak eremua mugatzen







du eta espaloi txiki bat bakarrik egon daiteke. Oinezkoek edo txirrindulariek mendebaldera joan behar dute lurpeko pasabide bat erabiliz.



→
Oinezkoen bidegurut-
zea Makaleta Etorbi-
dean, Fadurako sarrera
nagusiarekin lotuta..

→ →
AMakaleta Etorbidea-
ren mendebaldean
dagoen espaloia,
garagardoaren
parean..





A atala
Kalean iparralderen
dagoen tartean ez
dago lekurik ekialdean
espaloietarako edo
beste mota bateko
esku-hartzeetarako



B atala
Gaur egun, lurpeko
pasabidea modurik se-
guruen da etorbidea
iparraldetik gurutza-
tzeko, baina konpondu
beharko litzatekeen
leku gatazkatsua da



C atala
Errepideko tarterik
zabalenetako bat da,
berdeguneak ditu bi
aldeetan eta bidegorri
bat jartzeko tartea.



D atala
Fadurako eraikin
nagusiarekin zuzenean
lotura duen zatia.

HESIAK, SARBIDE NAGUSIAK ETA ATEAK

Gaur egun, Fadurak sarbide mistoko sistema bat du: sarbide batzuk tornuen bidez kontrolatzen dira eta beste batzuk sarbide libreak dira. Orain gaur egungo egoera berrikusiko da, aurreikusitakoaren arabera, etorkizunean sarbideak kudeatzeko sistema integratuago bat garatu nahi delako.

Tornuen bidez kontrolatutako sarbideak

Kiroldegiak bi sarbide nagusi ditu tornuekin: Lehenengoa eraikin nagusian dago. Igerilekuek, ikasketa-eremura, bulegoetara, fitness eremuetara eta bestelakoetara joateko da. Barru honetarako sarbideak (A) kontrol elektronikoa du, eta zuzenean ere kontrolatuta dago.

Kontrolatuta dagoen beste sarrera, frontoien eraikinarena da (C). Tornuak eta zuzeneko kontrola ditu, baina ez da eremura edo eraikinerak bakarrik sartzeko, izan ere, irekia da.

Teknika Hobekuntzarako Zentrarako sarbidea (B) ez dago Getxo Kirolakek kudeatutako barruan. Berariazko profilak dituzten erabiltzaileentzat bakarrik da, eta erreserbatuta dagoen aparkaleku-eremu batetik (M) sartzen da.

Normalean itxita dauden sarbideak

Zenbait eremurk hesiak dituzten sarbideak dituzte, eta normalean itxita daude. Klubek kudeatzen duten sarbidea.

Mota honetako sarbidea batez ere futbol-pistetan dago (D, N, Q), ez dutelako tornurik edo zuzeneko kontrolik, baina normalean itxita daude edo ezin da sartu, entrenamendu, partida edo bestelako baimendutako ekitaldietan izan ezik.


Garagardotegiaren eremuak normalean itxita dagoen sarbide bat ere du (E, F).

Kontrolik gabeko sarbide irekiak

Kontrolik gabeko sarbide irekiek pertsonak libreki igarotzea uzten dute, irekita dagoen ordutegian. Sarbide horietako batzuk, ibaiaren hobekuntza hidraulikorako lanetan sortu ziren arazoak txikiagotzeko ireki ziren. Ate horiek etengabe irekita egongo balira, herritarrek kiroldegiaren eremuaz gozatu ahalko lukete, baina beste mota bateko gatazkak ere sor litezke abonatuaren eta herritarren artean. Gaur egun (2017ko ekainean) libreki sar daiteke saskibaloia eta padel pistetara (G) eta iparraldeko eremu osora (I, L).

Zerbitzuetarako sarbideak

Kategoria honen barruan sartzen dira normalean itxita dauden eta teknikariek bakarrik erabiltzen dituzten sarbideak (H, O, R, S).



→ Fadurako kiroldegiko makro-eremuen irisgarritasuna.

Publikoarentzat aldi baterako irekitakoak


Futbol-klubek kudeatutakoak

Tornuen bidezko sarbideak

Eraikinak

Aldi baterako ezin erabil daitezkeenak

Eremu teknikoak



→
A. Fadurako kirolde-
giaren eraikin nagusi-
rako sarbideen bista.
Sarbidea tornuen eta
langileen bidez
kontrolatuta dago
egun osoan. Hondoan,
sarbide libreko
kafetegia dago.



→
B. Teknika Hobekun-
tzarako Zentroaren
eraikinerako eta
egoitzarako sarbidea.
Baimendutako atletak
bakarrik sar daitezke.





←

C. Iparraldeko instalazioetarako eta frontoien eraikinerako sarbide nagusia. Tornu batzuetatik igaroz sartu eta irteten da, baina eremura kontrolatu gabeko sarbideen bidez ere sar daiteke.



←

E. "Garagardotegiaren" eremurako sarbidea Makaleta Etorbidetik. Normalean itxita dago eta ez du sarbidea kontrolatzeko gailu aurreraturik..

→ →
Hesia amaitzen den
zatiaren bista, Makale-
ta Etorbidean zehar.

→
G. Garagardotegiaren
iparraldean kokatuta
dagoen sarbidearen
bista



→ →
H. Institutuaren
aldamenean dagoen
sarbide itxia.

→
Irteerarik gabeko bidea
padel-eremu irekian.



→ →
Hesien egoera
padel-pistetan.

→
Tenis-pisten hesiak.



→ →
L. Belodromora eta
atletismo pistetara
sartzeko ekialdeko
sarbidea.

→
I. Aldi baterako irekita
dagoen sarbidea
Bizkerre kalearen
iparraldean.





← ←
M. Teknika Hobekuntzarako Zentroaren aparkalekurako sarbidea.

←
Iparraldeko hesiaren eta atletismo pistaren arteko eremua..



← ←
Hockey pista eta entrenamendu pistak bereizteko hesiak.

←
Tarteka hesituta dagoen bidea, igerilekuen eta ibaiaren instalazio teknikoaren artean.



← ←
Teknika Hobekuntzarako Zentroaren hesiaren eta ibaiaren arteko tartea.

←
O. Futbol-zelaiaren hegoaldeko muturrerako sarbidea.



← ←
N. Futbol-pistetarako tarteko sarbidea

←
Q. Bolue 3 futbol-zelaiarako sarbidea Makaleta Etorbidetik.

KIROL JARDUERETARAKO BEHAR DIREN HESIAK

Hesiak eta tarteak aztertzean kiroldegiaren eremuak mugatzen dituzten hesiak eta kirol-jarduerak egiteko beharrezkoak diren hesiak bereizi behar dira.

Padelean, esaterako, hormak zelaiaren zati bat dira. Tenisean, zelaiak bereizteko eta pilotak zelaitik asko ez urruntzeko behar dira. Futbol-zelaietan ere hesiak behar dira, helburu berdinerako.

Zenbait kasutan, kirol-jarduerarako behar diren hesiak eta kiroldegia mugatzen duten hesi berak dira. Beste batzuetan gainjartzen dira, eta bata edo bestea gurutzatzean sarbideak kontrolatzeko aukera ematen dute. Gaur egun ez dago zuzeneko sarbide-kontrola duen kirol-pistarik, baina erabileraren arabera modu desberdinean kudeatzen dira.

Futbol-zelaietara, Getxoren zelaira eta Bolue 1, 2 eta 3ra giltzarekin sartzen da, eta giltza hori, klubak zuzenean edo Getxo Kirolakeko langileek kudeatzen dute.


Areto-futboleko eta saskibaloiko zelaiak gaur egun irekita daude, baina erreserbekin eta Getxo Kirolakeko langileek kontrolatuz funtzionatzen dute; baita kanpoko padel-pisten kasuan ere.

Guztiz hesituta dauden tenis-pista irekietarako sarrera Getxo Kirolakeko langileek ere kontrolatzen dute.

Hesitutako dagoen azken eremua ere hesituta dago, kirolak hala eskatzen duelako eta sarrera kontrolatzeko, eta eremu hori hockey-pista da, normalean itxita dagoena eta erreserba bidez kudeatzen dena. Kontrolatzen duten langileak dituzte.



→ Kanpoko hesiaren eta padel-pisten hesiaren arteko eremua.



HESI ARKITEKTONIKOAK ETA IRISGARRITASUNA

Iturria: Getxo Kirolak irisgarria lortzeko jarduteko proposamena – Irisgarritasun txostena eta eranskinak, 2016, Irisgarritasunari buruzko txostena - Getxo Kirolak - Arquinea, 2017 (zenbait fase)

* Gorabeheren ebaluazio-taulak Getxo Kirolakek - Arquinea egindako dokumentutik zuzenean jaso dira.

Fadurako kiroldegiko instalazio nagusiak 70eko hamarkadan eraiki ziren, eta garaiko eraikin publiko nagusiak bezala, pertsona guztien irisgarritasun-behar berrietara egokitu behar dira (“Desgaitasunak dituzten pertsonen aukera-berdintasunari, ez-bazterkeriari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko Legean” ezartzen den moduan).

Nagusiki horizontalean dagoenez, eta eremuetara furgonetaz edo beste baliabide batzuen bidez sar daitekeenez mantentzeko, Fadurako eremu ireki nagusietara mugikortasun murriztua duten pertsonak ere sar daitezke. Baina horrek ez du esan nahi kiroldegia guztiz irisgarria denik.

Getxo Kirolak gaur egun kanpoko ibilbideen, sarbideen eta haien inguruan, atondoan eta harrera-guneen, barneko ibilbideen, kirol-instalazioen eta aldagela eta dutxen irisgarritasuna hobetzeko lan egiten ari da.

Dagoeneko zenbait txosten ditu Getxo Kirolakek instalazioen gaur egungo irisgarritasun-egoerei buruz, eta, orain (2017ko ekaina), txosten bat burutu da esku hartzeko proposamenekin aurreko faseetan aurkitu ziren arazo gehienak konpontzeko. Prozesu honen azken fasean (2017ko uztailearen amaierarako aurreikusitakoa), behin betiko txosten bat izango da bi instalazioei buruz (Fadura eta Gobela), irtenbideak eta horien balorazio ekonomikoa zehaztuz.

Fadurako kiroldegian 50 gorabehera aurkitu ziren: 19, Fadurako eraikin nagusian; 2, kafetegian; 11, frontoien eraikinean; 5, Getxo kirol-klubaren zelaian; 7, Bolueren zelaietan eta, 6, atletismo-pistetan eta inguruko eremuetan.

Faduran aurkitu diren irisgarritasun-arazo ugari direla eta, esku-hartzaileei lehentasuna ematea erabaki da, puntuazio-sistema hau erabiliz:

- 1,5 puntu, “eremura edo barrutira joateko ibilbide irisgarririk ez badago”.
- 1 puntu, “eremura edo barrutira joateko ibilbidean akatsak badaude”.
- 0,5 puntu, “erabilera irisgarrian akatsak badaude”.

Eta zehapen-sistema hau ere erabiliz:

- 1,5 puntu, “gorabeherak eraikinaren sarbide nagusian eragiten badu, edo kirol-jarduerara modu autonomoan egiteko eragozten badu”.
- 1 puntu, gorabehera “beheko solairuan” badago
- 1 puntu, “gehienbat erabiltzaileei edo Getxo Kirolakeko bazkideei eragiten badie, teknikarien, klubaren, ikusleen edo bisitarien aurrean”.

ERAIKIN NAGUSIA BEHEKO SOLAIRUA*

Gorabehera	
Sarbide nagusia. Ateen konfigurazioa dela eta zaila da mugikortasun murriztua dute pertsonak sartzea.	3,5
Publikoaren arreta. Ez dago egokitutako mostradore edo leihatilarik	2,5
Komunak multzoka egokituta. Bestelako gorabeheren artean, ez dago 80 cm-ko tarterik komunera joateko eta ez dago alarma-sistematik.	2,5
Igogailua. Bat bakarrik dago eraikin osoan. Sartzeko dagoen korridorea beheko solairuan 112 cm luze da. Ez dago lekuri gurpil-aulki bat biratzeko. Giltza behar da	2
Masaje eta estetika eremua. Sartzeko korridorea 112 cm luze da. Ez dago lekuri gurpil-aulki bat biratzeko sarbideko atondoan.	2
Komunak multzoka egokituta. Distantziei eta tresnen garaierari buruzko bestelako gorabeheren artean, ez dago alarma-sistematik.	2,5
Aldagela egokituak. Eremu hezea. Bestelako gorabeheren artean, ez dago 80 cm-ko tarterik komunera joateko eta ez dago alarma-sistematik. Giltza behar da.	2,5
Aldagela egokituak. Eremu lehorra. Ez dago aldagela egokiturik eremu lehorrean.	2,5
Komunak multzoka egokituta. Ez dira irisgarriak, sarbidean ez dagoelako eremu nahikorik biratzeko. Barruan, distantziei eta tresnen garaierari buruzko bestelako gorabeheren artean, ez dago alarma-sistematik.	2,5
Kanpoko igerileku handia eta txikia. Handiak ez du garabi finkorik, eta erabiltzen den garabi eramangarria Gobelan ere erabiltzen da. Zenbait puntutan, ontziaren inguruko pasabidea 180 cm baino txikiagoa da. Ez dago esku-bandarik igerileku txikian. .	3,5

ERAIKIN NAGUSIA LEHEN SOLAIRUA

Gorabehera	
Barruko igerilekuak. Ibilbide irisgarria igogailuz egin behar da eta giltza behar da, beheko solairuko aldageletatik. Ez du garabi finkorik, eta erabiltzen den garabi eramangarria Gobelan ere erabiltzen da. Instalazioa eginda dago baina ez dago garabirik..	3,5
Bulegoak. Irisgarria den ibilbide bakarra igogailuz egiten da, eta giltza behar da. Beheko solairutik, igerilekuan jaistea eta soroslearen gela zeharkatzea heltzeko. Ez dago egokitutako mostradore edo leihatilarik.	2
Komun egokitua. Bestelako gorabeheren artean, ez dago gurpil-aulki bat barruan biratzeko lekurik.	1,5
Igerilekuko harmailak. Ez dago erreserbatutako eremurik edo plazarik.	0,5
Gimnasioa, arte martzialak eta dantza. Ibilbide irisgarri bakarra igogailuz egiten da, giltza behar da eta beheko solairutik egiten da. Beheko solairuan heldu beharko litzateke, lehen solairura igo eta txikipark zeharkatu gimnasioko larrialdietarako ate batetik sartu. Hortik, beste bi aretoetara.	3,5
Makinak ibilbide hori egiten uzteko moduan kokatuta egon beharko lirateke.	
Kantxen harmailak. Leku egokitueterako lekuak dituen eremu bakarra lehen solairuan dago, baina ez dago barandarik. Horietara igogailuz joaten da, giltza behar da, eta eraikinerako sartzeko beheko solairutik egiten da.	2
Ikasketa-aretoa. Dagoen sarbide bakarrean bi eskailera daude.	1,5

ERAIKIN NAGUSIA BIGARREN SOLAIRUA ETA OROKORRA

Gorabehera	
Bulegoak. Sarbide bakarrean 6+5 eskailera-maila daude, eta ate bat dago bi tarteetan artean	1,5
Beste gorabehera batzuk aurkitu dira eraikinean: Larrialdietarako ateak. Ez dute beheko barrarik zorutik 20 cm-ra. Arrapalen eta eskaileren eskubandak. Altuera edota alde batean bakarrik daude. Eskailerrak. Intradosa 2,20 cm baino gutxiagoko garaieran irekita dago. Komun eta aldagela egokituak. Altuerak ez dira egokiak komunitatean, eserlekuetan eta dutxa-ko eserlekuetan. Ez dago eskudelik eta transferentzia-barrarik edo neurriak ez dira zuzenak. Ez dago alarma-sistematik edo ez dira egokiak. Eremu lehorrak ez du aldagela egokiturik. Gurpil-aulki kopurua. Ez da nahikoa (mantentze-lanetako langileek emandako informazioaren arabera, sei gurpil-aulki daude Fadura osorako) (1/100 perts. izan behar du). Aparkaleku-plaza irisgarriak. Sarbidearen ondoan dauden 3 plazak nahikoak dira (1/40 pl). Plazak 545 cm luze dira, eta 600 cm luze izan behar dute.	1,5

FRONTOIEN ERAIKINA BEHEKO SOLAIRUA

Gorabehera	
Sarbide nagusia. Ateen konfigurazioa dela eta zaila da mugikortasun murriztua dute pertsonak sartzea.	3,5
Publikoaren arreta. Ez dago egokitutako mostradore edo leihatilarik.	2,5
Komun eta aldagela egokituak. Ez dago higiene-zerbitzurik beheko solairu osoan.	2,5
3. eta 4. padel-pista. Sarbide bakarrak bi eskailera-maila ditu. Perimetro-korridorea oso estua da: 1,00 eta 1,15 m artekoa.	2,5
3. frontoia Ibilbidea luzeegia da frontoitik "4. irteeratik" irteteko.	2

FRONTOIEN ERAIKINA BESTE SOLAIRU BATZUK

Gorabehera	
Lehen solairu osoa. Dagoen sarbide bakarrean eskailerak daude.	4
Komun eta aldagela egokituak. Ez dago higiene-zerbitzurik lehen solairu osoan.	1,5
Komun eta aldagela egokituak. Ez dago bigarren solairu osoan.	1,5
Ibilbide irisgarria. Arrapalak luzeegiak dira eta zoladura narriatuta dago. Sarbideko eskaile-ra-maila hobe daitekeen zementu-falka bat du.	2,5
Solairu osoa. Dagoen sarbide bakarrean eskailerak daude.	1,5
Beste gorabehera batzuk aurkitu dira eraikinean: Larrialdietarako ateak. Batzuek ez dute beheko barra zorutik 20 cm baino gutxiagora. Arrapalen eta eskaileren eskubandak. Batzuk altuera edota alde batean bakarrik daude. Eskailerak eta arrapalak. Intradosa 2,20 m baino gutxiagoko altueran irekita dago. Kanpoko arrapalen luzera handiegia da. 20-25 m > 10 m. Komun eta aldagela egokituak. Ez dago eraikin osoan. Gurpil-aulki kopurua. Ez da nahikoa (mantentze-lanetako langileek emandako informazioaren arabera, sei gurpil-aulki daude Fadura osorako) (1/100 perts. izan behar du). Aparkaleku-plaza irisgarriak. Sarbidearen ondoan dagoen plaza kopurua nahikoa bada ere (1/40 pl), plazen tamaina 444x294 cm da, eta 600x360 izan behar dute. Zoladurak akatsak ditu	1,5

ATLETISMO EREMUA

Gorabehera	
Oinezkoen ibilbideen zoladurak. Zenbait eremutan narriatuta daude, barruko tenis-eraikinerako sarbidearen inguruan legarrezkoak dira, eta atzealdean % 12tik gorako malda duen arrapala bat dago.	3,5
Komun eta aldagela egokituak. Ez dago higie-ne-zerbitzu egokiturik atletismoko eraikinean.	2,5
Belodromoko eta atletismoko harmailak. Eskailerak igoz sartzen da.	1,5
Barruko tenis-pistak. Pistetara sartzeko atee-k 80 cm-tik beherako pasabidea dute. Aukera bakarra 3. pistara ibilgailuen atzeko atetik sartzea da	4
Kanpoko padel-pistak. Sarbide-ateak erdian daude, eta horrek igarotzea murrizten du eta ezin da sartu.	4
Komun eta aldagela egokituak. Ez dago higie-ne-zerbitzurik konplexu osoan. Gurpil-aulki kopurua. Ez da nahikoa (mantentze-lanetako langileek emandako informazioaren arabera, sei gurpil-aulki daude Fadura osorako) (1/100 perts. izan behar du). Aparkaleku-plaza irisgarriak. Ez dago plaza egokiturik Bizkerre kaleko sarbideetan eta Iturgitxiko atean. 1c/40plz.)	1,5



ILDO ESTRATEGIKOAK - MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

Udalarekin lankidetzan kiroldegira sartzeko bideen hobekuntza ezartzea, hurbilen dauden metro-geltokietatik hasita.

Udalarekin lankidetzan Gobelaren haranerako “zeharkako” garraio publikoko zerbitzuaren hobekuntza ezartzea, ekialde-mendebalde ardatzean.

Fadurak Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plan berrian duen eginkizuna zehaztea.

Auto pribatuaren ordezeko garraiobideen erabilera erraztea eta sustatzea.

Auto partekatuaren erabilera sustatzea, batik bat zenbait erabiltzaile-erkidegoen artean, hala nola ekipamenduak, ikasle taldeak, umeei doazen gurasoak eta abar.

Bizikleten aparkalekuen segurtasuna hobetzea, txirrindulariak seguruago senti daitezen.

Aldirietako aparkalekuen eginkizuna, kudeaketa-sistema eta Fadurarekin duten lotura berriro pentsatzea.

Udalarekin batera Makaleta Etorbidearen diseinuaren aukerak berrikustea, irisgarritasuna eta Faduraren eta hirigunearen arteko lotura errazteko.

Fadurako mendebaldeko ertza berriro pentsatzea, guneko gisa, eta Makaleta Etorbidearen bidez hiriarekin duen lotura berrantolatzea.

Fadurara sartzeko gunak berriro definitzea, herritar guztientzat irekiagoa eta irisgarriagoa izan dadin, eta inguruarekin duen harremana hobetzea.

Kiroldegiaren ertzak eta hesiak berriro definitzea, hiri-parke irekiago eta irisgarriagoko ikuspegi berri baten arabera.

Abonatuentzat mugatutako edo erreserbatuz bakarrik sartzen daitekeen eremuetarako sarbidea kontrolatzeko sistema hobetzea

Ibilbideen jarraitutasuna bermatzea ibaiaren ertzean zehar, Bolueko hezegunea eta Institutuaren eremua lotuz.

Eraikinetan nahiz kanpoko eremuetan, aparkalekuetan eta bestelakoetan aurkitutako irisgarritasun-arazoak konpontzea.